

OTO ETA POTOTO

OTOTXO'K MINA BURUAN...

Andre Joxepa bere umea artuta tranbian zijoan. Bazuen umeak okerreren bat... Burua aundituta eta oial zuriz ondo lotuta...

Ume, garraxi batean, iltzera daramaten txerrikumearen antzera (animea apartatuta)... Ama, berriz, kopetillun.

Oso asarre.

Umea ixildu arazteko, buruan zigortzen eban noiz-bein-ka.

Ixildu? Bai, bai... Kurriskak geroz eta larriagoak, mingarriagoak, zaratatsuagoak...

Tranbiako jendeak ez zion amari begi onez begiratzten. Mutxurdin batek besteari:

—Ikusi al den sekula orrelako ama biotz-gogorrik?

—Ez, neska, ez den erreza orrelako ama zekenik billatzeri k!

Umearen kurrixkak tranbi ososa betetzen zuten; baña, andre Joxepa'k ango esan-mesei kasorik egin gabe, buru aundi arrei zaplaztakoak ematen jarrai eban.

Erreka-baztarretako urjolaren orruak geitzen dijoazen bezela, ala moduz, tranbi artako gizadiaren orruak geroz da gogoragoak ziran andre Joxepa'ren kontra:

—Au da basurde-emea...!

—Abereak be euren umeak obeto zaintzen dabez...!

—Nundik sortutako sorgin txarra degu emakumea au...?

Gogaitu zitzaion andre Joxepa'ri bere pazentzia ainbeste astakari entzunda eta jarri zan ollarra bezela danen aurka:

—Semea nerea da eta neronek dakit zuek baño obeto berarekin zer egin!

—Kanpora!

—Atxo madarikatua!

—Animalia!

—Zistrin alena!

Zer esan ez zituzten tranbi aretan!

Baña, andre Joxepa ez zan errez ikaratzekoa,

Ez, orixe!

Ezer besterik erantzun barik asi zan bere semearen burutik oial zuriak kentzen... Burua aundia berez eta orain azita gero, oialak luze... Trapubenda oiek kentzean, tranbi osoa ao-zabalik gelditzu zan:

—Baña nola gertatu zaio ori?!

—Gertatuta! (Amak)

—Nola leike...?

—Errementari baten billa noa.

—Baña, nola?

—Ogean ezin geldirik egon eta buruz-beera erori zait, trakets au.

—Errementari batengana?!

—Buruz-beera oñalean sartun du burua eta atera ezin.

Eta oñala, ez da lurrezkoa, burnizkoa, baizik. Ateratzeko errementaria, bear.

ANES (DEBA-1968)

LOIOLA'KO IGNAZIO TA EUSKERA

Iñoz entzun dogu Loiola'ko Ignazio'k ez ekiala euskerarik eta orregaitik ez ebalako ezer be idatzi euskeraz. Aztertu daigun arazo au.

Ba-dakigu Xabier'ek ba-ekiala euskeraz, ori berak diñoalako eta Santxon ugartean ilten egoala gure euskeraz egin ebalako, baiña ez eban ezer be idatzi gure izkuntzaz.

Beste alde batetik, Inizio'ren idazkietan izkuntzalariak euskal-kutsu aundia aurkitzen dabe: Superlatibo gitxi, esaldi laburrak eta abar.

Josulaguna zan lego batek esan ei eutson Inazio'ri ilteko egoala:

—Aita! Zure erriko dantza bat ikusi nai neuke il aurrean!

Eta Ignazio'k aureskua dantzatu eutson bertan, bear ba'da ez lar ondo, errena be bazan-eta. Orrek esan nai dau euskal-gauzak ezagun ebazala.

Gaiñera, orantsura arte idazten jarten izan garanean, beti erdereza artzen izan dogu. Geuk ba gaztetako eskutitzak etxera erderaz egiten genduzan. Ori antza, Ignazio'k eta Xabier'ek be.

Dana dala ba-dagoz eskutitz zarrak euskeraz idatzita, esaterako Zumarraga'ko Frai Juan'ena Ameriketatik eta Berriotxo'a'tar Balendin'ek bere amari idatziak. Bear ba'da aitari erderaz egingo eutson!

Gauza ederra izango zan euskerearentzat Loiola'ko Inazio'k "Gogo-jardunen liburua" euskeraz idatzi ba'leu.

Gaiñera, esan bearrekoa da, Ignazio'k España'rako izendatu eban lenengo arduraduna Araoz'ko Antonio euskalduna izan zala eta onek sarritan berba egiten eban eleizetan euskeraz. Eta Ignazio'ri idazten eutsonen beste iñok ulertzerik nai ez ebanean, euskeraz idazten eutsozala esaldi batzuk.

Inazio'k bere errira etorri zanean erritarrai berba egiten eutsen euskeraz, 1535n. urtean, 44 urtekoa zala etorri zan Paris'tik Azpeitia'ra osasuna lortzeko eta ICurriotz'ko bentara sartu zanean, bere euskeratik igarri eben nongoa zan.

OLAZAR'TAR Martin'ek